

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2023 000002397

Espediente-zenbakia: 2023/IDA_ERA_0044**Xedea**

Bermeoko Merkataritza establezimenduetan euskaraz ipinitako errotuluak finantzatzeko 2023. urterako dirulaguntzen deialdia onartzea eta zabaltzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2020ko apirilaren 24an, udal Osoko Bilkurak, 2020-22 epealdirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta Dirulaguntzen Berariazko Oinarriak onartu zituen. Erabaki horren iragarkia 2020ko uztailaren 8an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Berariazko oinarri horien artean, Bermeoko merkataritza establezimenduetan errotuluak euskaraz ipintzeko dirulaguntzenak onartu ziren.

Bigarrena: 2020ko irailaren 25an, udal Osoko Bilkurak, zenbait berariazko oinarri aldatzea onartu zuen eta, euren artean, Bermeoko merkataritza establezimenduetan errotuluak euskaraz ipintzeko dirulaguntzenak. Erabaki horren iragarkia 2020ko urriaren 26ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hirugarrena: 2020-22 epealdirako urtez urteko dirulaguntza deialdiak onartu eta zabaltzea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrek; 2020ko azaroaren 10eko, 2021eko maiatzaren 11ko eta 2022ko martxoaren 22ko Tokiko Gobernu Batzarretan, hurrenez hurren. Deialdi horiek BDNS datu basean eta udalaren webgunean argitaratu ziren.

Laugarrena: 2022ko abenduaren 19an, udal Osoko Bilkurak, 2023-25 epealdirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen. Erabaki horren iragarkia 2023ko martxoaren 6an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Bosgarrena: 2023ko martxoaren 31n, udal Osoko Bilkurak, errotuluen Berariazko Oinarriak aldatzea erabaki zuen. Erabaki horren iragarkia 2023ko maiatzaren 12an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Argudioak

Lehenengoa: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikulua eta erlazionatutakoak.



Bigarrena: Dirulaguntzen deialdiak onartzeko eta zabaltzeko ahalmena Alkatetzarena da, baina eskumen hori Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetuta dago 2021eko otsailaren 2ko 255 Alkatetza Dekretu bidez.

Erabakia

Goian adierazitakoa kontuan hartuta, honakoa erabaki da:

LEHENENGOA: Bermeoko Merkataritza establezimenduetan euskaraz ipinitako errotuluak finantzatzeko 2023. urterako dirulaguntzen deialdia eta eskaera-orria onartzea eta zabaltzea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2023ko maiatzaren 12an argitaratutako oinarrien arabera.

BIGARRENA: Deialdi honen publizitatea BDNS datu basean argitaratzea.

HIRUGARRENA: Bermeoko Udalaren webgunean deialdi honen publizitatea argitaratzea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000C8D8400C5A6R2F9W5Q6

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 23/05/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/05/2023
09:40:32

EXPEDIENTE ::
2023IDA_ERA_0044

Fecha: 14/03/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

